# Aiurri

BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA

Argitalpen berezia / 2003ko urtarrila / Sagardotegiaren oparia



**ABURUZA** ☎ 943 692 452 Aduna

**ELUTXETA** ☎ 943 556 981 Urnieta

**ETXEBERRIA** ☎ 943 555 697 Astigarraga

**GAZTAÑAGA** ☎ 943 591 968 Andoain

**LARRE-GAIN** ☎ 943 555 846 Ereñozu-Hernani

**MIZPIRADI** ☎ 943 593 954 Andoain

**OIANUME** ☎ 943 556 683 Urnieta

**SARASOLA** ☎ 943 690 283 Asteasu

**ZABALA** ☎ 943 690 774 Aduna

Aiurri

BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA

Argitalpen berezia / 2003ko urtarrila / Sagardotegiaren oparia

# Kantu Liburuxka



M.ARAVENDI
KULTUR
BAZKUNAK
ARGITARATZEN DU

ADUNA · LARRAUL · ASTEASU · ZIZURKIL · BILLABONA · ANDOAIN

UDALEN BABES ETA LAGUNTZAREKIN

*Beterri-Aiztondo*
*Gerora Bidean*


Aiurri
BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA

Dr. Huizi 15. 1.esk - 20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731

Kale berria 47, 3-esk. - 20150 Amasa-Villabona (Gipuzkoa)
Tel.: 943 69 64 50

aiurri@topagunea.com / www.aiurri.com




## >>> KANTU POLITIKOAK

Riau, riau, riau
gu danok euskaldunak gera,
riau, riau, riau,
gora gora gure euskera.

Euskaldunak jayota
euskaldunak bizi,
euskeraz hitzegiten
amak erakutsi.

## >>> DANTZAK

Andre Madalen! Andre Madalen!
laurden erdi bat oliyo,
aitak jornala ekarritzian
amak pagatuko dio.

Amak pagatzen
ez baldin bayo
aitak pagatuko diyo,
aitak pagatzen ez baldin bayo,
or konpon eta adio!

**ANDOAIN:** Ernaitza, Delgado, Ikas-Jolas, Inazio eta Stop ■ **ASTEASU:** Xeberone ■ **LARRAUL:** Herri Ostatua ■ **ZIZURKIL:** Iriarte Kultur Etxea ■

# BETERRIKO KANTAK

## Betiko abestien CD-ROMa

Leire Ibañez Mendikute andoaindarrak zuzenduriko multimedia lan honetan Beterri-Aiztondon jasotako 120 kanta biltzen dira. Eskualdeko tradizioa azaltzen duen lan bikaina da, betiko gordetzen duena euskal kulturaren altxorretakoa: kantagintza.

Gai ugariren inguruan sortutako kantuak dira lan honetan jaso direnak; gabon eta erronda kantuak batetik, ume kantuak bestetik, baita kantu erlijiosoak, errezitatiboak, gerra garaikoak, dantzak, festa girokoak, erromantzeak, kanta lirikoak eta bertsoak ere. Kanta gehienak euskarazkoak dira, baina gaztelerazkoak ere badaude; "garaiko egoera jasotzen baitute" egilearen esanetan.

CDarekin batera, kantuen letrak eta partiturak ere landu dituzte eta kantuak musika aparatuan entzuteaz gain, ordenagailu bidez ere entzun eta ikusi ahal izango dira. CD-ROMa elkarlanean egindako lanaren emaitza da, "informatzaileak kolaboratzaile izateaz gain, lanaren protagonista dira" dio Leirek.



### >>> SEHASKA KANTAK

Lua lua santa lua,
zeruetako jaungoikua
emayozu aurtxu oni,
bi ordu terdiko lua

### >>> ERREZITATIBOAK

Señor maestro: txoriya he visto,
arriya tirado, ankian pegado,
odola sacado, sasian trabado
Buscando buscando... denbora pasado!

**ESKUALDEAN SALGAI:**
**ADUNA:** Uztartza ■
**AMASA-VILLABONA:** Periodista, Basajaun eta Ogi-Goxo ■



Alferraren astea . . . . . 4
Bagare . . . . . 5
Itsasontzi baten . . . . . 6
Maitatzen zaitudalako . . . . . 8
Ikusi mendizaleak . . . . . 9
Gure aitak amari . . . . . 10
Umetxoa eta lorea . . . . . 12
Mendian gora . . . . . 14
Iluntzean . . . . . 16
Gora ta gora beti . . . . . 18
Kattalin . . . . . 20
Aldapeko . . . . . 21
Ala kinkirrin . . . . . 22
Maddalen . . . . . 24
Katuen testamentua . . . . . 24
Gure koadrilan . . . . . 25
Aita semeak . . . . . 26
Pello Joxepe . . . . . 28
Din dan matutian . . . . . 28
Atzo, atzo . . . . . 28
Bentatik nator . . . . . 29
Xarmangarria zara . . . . . 30
Prima Eijerra . . . . . 32
Beterriko Kantak . . . . . 34

## ALFERRAREN ASTEA

Astelehena,
jai ondoren alferra,
ezer ez egiteko,
ez goaz lanera,
ez goaz lanera,
ez goaz lanera
ez goaz lanera
ez goaz lanera.

Asteartea,
euria goitik behera,
busti egingo gara,
ez goaz lanera...

Asteazkena,
osaba ezkontzen da,
ta jai hartzen badu,
ez goaz lanera...

Osteguna,
amonaren eguna,
festa hau ospatzeko,
ez goaz lanera...

Ostirala,
haginetako mina,



10 urte, hamaika komeri•
Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna
1992-2002

943 300 732

BETERRI-AIZTONDOKO
ERRETRATU
ZAHARRAK
ARGAZKI LIBURUA




HAMAR URTE,
HAMAIKA KOMERI!
BIDEOA



BETERRIKO
KANTAK
CD-ROMa



eskualdean
salgai!

## PRIMA EIJERRA

Prima eijerra
zutan fidaturik,
anitz bagira
oro tronpaturik.
Enea zirenez
erradazu bai ala ez,
bestela banoa
desertiala,
nigarrez urtzera.

Desertiala
joan nahi bazira,
arren zoaza,
oi, baina berehala!,
ez zitiala jin
berritan nigana,
bestela gogoa
doluturen zaizu,
amoros gaixoa.

Nitan exenplu
nahi duenak hartu,
ene malurak
parerik ez baitu.
Xarmangarri bat
nik bainuen maitatu,
fidatu, tronpatu...!
sekula jagoiti
ikusi ez banu.

Mintzo zirade
arrazoi gabetarik
ez dudala nik
zur amodiorik.
Zu baino lehenik
banuen besterik
maiterik, fidelik.
Hor ez dereizut
egiten ogenik.







aspirina hartuta,
bagoaz ohera...

Larunbata,
egun erdiko lana,
egun erdiagatik,
ez goaz lanera...

Igandea,
lantegia itxita,
lana egin nahi baina,
ezin joan lanera...

## BAGARE

Araban bagare,
Gipuzkoan bagera,
Ziberun bagire
ta Bizkaian bagara (bis).
Baita ere Lapurdi
ta Nafarra.

Guztiok gara euskaldun,
guztiok anaiak gara,
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera (bis).

Herri bat dugu osatzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera,
bagire, bagara,
Euskadi askatzeko
oraintxe dugu aukera (bis).

## ITSASONTZI BATEN

Itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora
naramate eta ez dakit nora.

Agur nere ama laztan goxoari
agur nere maite politari
ez egin negar etorriko naiz egunen baten
pozez kantari.

Itsasontzi baten...

Agur senideak agur lagunari
agur Euskal Herri osoari.
ez egin negar etorriko naiz egunen baten
pozez kantari.

Gora Euskal Herri, Gora Euskal Herri
Gora Euskal Herriari.






# MIZPIRADI

**TOLARE SAGARDOTEGIA**

**MIZPIRADI BASERRIA ☎ 943 593954**

**LEIZOTZ AUZOA-ANDOAIN**








*Nagusia: Anjel Arruabarrena*

*Urtarrilaren 18tik aurrera zabalik.*

*Txotx garaian soilik.*

*60 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.*

*Astean zehar gauean zabalik, baita larunbata eta igande eguerdietan ere.*

*Igande gauean itxita.*

## XARMANGARRIA ZARA

Xarmangarria zira, eder eta gazte,
ene bihotzak ez du zu baizikan maite.
Bertze zonbait bezala, ote zira libre?
Zurekin ezkontzeaz dudarik ez nuke.

Zuri-gorria zira, arrosa bezala,
profetak ere dira mintzo hola-hola.
Araberan bazinu gorputza horrela
iduriko zinuen... zeruko izarra.

Oi, maitea, zatozkit plazer duzunean,
nehork ikusi gabe, ilunabarrean.
Lagun bat badukezu joaiteko bidean,
hark ezarriren zaitu trankil bihotzean.

Plazer eginen duzu, isiltzen bazira,
haur inorantak hola tronpatzen baitira.
Ez da neretzat ina holako segida...
Bertzalde zure baitan ez naiteke fida.

Adio, beraz, orai, ene arraroa,
hori dela medio, herritik banoa,
bihotza triste eta kexuan gogoa,
beti jarraikiren zait zur amodioa






OIANUME



TOLARE - SAGARDOTEGIA
JATETXEA

☎ 943 556 683

ERGOIEN AUZOA URNIETA

Nagusia: Iribar Etxaiz anaiak.

Urte osoan zehar zabalik.

250 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.

Astelehenetik ostiralera haragia eraman daiteke.

Txotx garaian, sagardotegi berria.

## MAITATZEN ZAITUDALAKO

Maitatzen zaitudalako
kantatzen dizut zuri
zu zaitut negu beltzean
eguzki epel zuri,
sargori denean berriz
maitasunezko euri.

Guk elkarri zenbait kontu
eta zenbait irriño!
iruditzen zait gerala
ilargitan bi laino,
egunez bihurtzen gera
zu ta ni bi txoriño.

Elkarri begiratuta
hasten gera kantari
orduan deitzen diogu
maitasun haizeari
eta harek hartzen gaitu
firi-firi dantzari.
Dantza dezagun, ba, dantza
maiteño bihotzeko!
Mundura ez ginen jaio
gu triste bizitzeko,
baizik tristura guztiak
kantuz poz bihurtzeko.







## BENTATIK NATOR

Bentatik nator,
bentara noa,
bentan da nere gogoa.
Bentako arrosa
krabelinetan,
hartu dut amorioa.

Zuk ederretan,
nik galantetan,
zuk ederretan gogoa.
Ederretan dan
galantena da
Ana presentekoa.

Horrek galai bat
behar omen du
bera dan bezalakoa.
Bera ona ta
hobea luke
Joxe Mari presentekoa.

## PELLO JOXEPE

Pello Joxepe tabernan dela
haurra jaio da Larraulen. (bis)
Etxera joan ta esan omen du
ez da nerea izanen,
ama horrek berak topa dezala
haur horrek aita nor duen.

Ai, hau pena ta pesadunbrea,
senarrak haurra ukatu.
Haur honentzat beste jaberik
ezin nezake topatu.
Pello Joxepe, bihotz nerea,
haur honek aita zu zaitu.



## ATZO, ATZO

Atzo, atzo, atzo
atzo hil ziren hamar atso.
Baldin ardoa merkatze ez bada
hilko dirade beste asko.
Atzo, atzo, atzo hil ziren hamar atso





## IKUSI MENDIZALEAK

Ikusi mendizaleak
baso eta zelaiak
mendi tontor gainera
igo behar dugu.
Ez nekeak,
ezta bide txarrik
gora, gora! Euskal Herria
a, a, a,
gu euskaldunak gara
Euskal Herrikoak (bis).

Hemen mendi tontorrean
euskal lurren artean
begiak zabaldurik
bihotza erreta.
Hain ederra
Hain polita da eta
gora, gora, Euskal Herria
a, a, a,
gu euskaldunak gara
Euskal Herrikoak (bis).

## GURE AITAK AMARI

Gure aitak amari
gona gorria ekarri (bis)
berriz ere maiteko dio
gure amak aitari.
Gure aitak amari
gona gorria ekarri.

Gona gorri-gorria
zazpi jostunek josia (bis)
berriz ere maiteko dio
gure amak aitari.
Gure aitak amari
gona gorria ekarri.

Gure amak aitari
fraka berriak ekarri (bis)
berriz ere maiteko dio
gure aitak amari.
Gure amak aitari
fraka berriak ekarri.

Fraka berri-berriak
zazpi jostunek josiak (bis)
berriz ere maiteko dio
gure aitak amari.
Gure amak aitari
fraka berriak ekarri.





ELUTXETA
TOLARE SAGARDOTEGIA
OZTARAN BAILARA
☎ 943 556 981 URNIETA






Nagusia: Juan Joxe Urruzola

Urte osoan zabalik sagardotegi eta erretegi moduan.

Astelehenetan itxita.

Umeentzako jolastokia.

200 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.

Berezitasuna: Euskal Herriko behi txuleta.

## AITA SEMEAK

Aita semeak tabernan daude
ama alabak jokoan...

Berriz ikusi beharko dugu
behi gizena auzoan
berriro ere ez da faltako
trapu zaharrik kakoan.

Hondamendia gertatu zaigu
geure etxean horrela
guztiok bizi nahi dugu baina
nola biziko bestela.

Geurea dugu erru guztia
geurea dugu osoan
ez inori ba errua bota
Euskal Herria hiltzean.

baina gaztea naiz eta daukat
etorkizuna eskuan
ez zaigu hilko Euskal Herria
ni bizi naizen artean.






# ABURUZA



TOLARE SAGARDOTEGIA

☎ 943 692452

FAXA 943 692153

ADUNA

*Nagusia: Juan Jose Aburuza*

- *Urtarrilaren 10etik iraila bukaerarte zabalik.*
- *200 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.*
- *Igandetan itxita.*

## UMETXOA ETA LOREA

Mendian lar artean aurkitzen da loretxo bat.
Aurrean umetxo bat loretxoari begira.

Loreak esan nahi dio:
"Umetxo, aska nazazu!
Jaio naiz libre izateko
ta ez loturik egoteko!".

Umetxoak ikusirik lorea ezin bizirik
arantzak kendu nahi dizkio bizi berri bat eman.

Orduan izango baitu indarra eta kemena,
orduan emango baitu ugari bere fruitua.







testamentua:
amumarentzako, amumarentzako
hankak eta burua,
aititarentzako, aititarentzako
abarkak egiteko narrua.
Mantxonintzako, Mantxonintzako
tripa-barrua,
horixe dala, horixe dala
katuan testamentua.

## GURE KOADRILAN

Gure koadrilan,
gure koadrilan,
gure koadrilan mozkorra franko
eta gainera soltero.
Eta gainera,
eta gainera
eta gainera ezkontzerikan
ez du inork espero,
ez orain eta ez gero.

Hau duk zorioneko
ezkondu beharra,
ezkondu baino lehenago,
biziko naiz mutil zaharra.

## MADDALEN

Zutaz oroitzen naiz
ene Maddalen
etxetik urrun nabil
maite zaitudan arren.

Festa bakar hartan
azaldu zinen
dena esango dizut
maite zaitudan arren.

Salto eta algara
egin dugu aurten
ia puskatu zaitut
maite zaitudan arren.

Baina bukatu da
seguru naiz zeren
etxetik urrun nabil
maite zaitudan arren.

## KATUEN TESTAMENTUA

Hil da, hil da
gure katua,
egin dau, egin dau



LARRE-GAIN
TOLARE SAGARDOTEGIA




Nagusia: Ixabel Santa Kruz
Urtarrilaren 17tik apirila bukaera bitarte, zabalik.
Bertan egindako sagardoa.
120 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.
Astelehenetan itxita. Ostirala, larunbata zein igande eguerdian zabalik.
Berezitasuna: Makailua saltsan enkarguz.

## MENDIAN GORA

Mendian gora haritza,
ahuntzak haitzean dabiltza,
itsasoaren arimak dakar
ur gainean bitsa.
Kantatu nahi dut bizitza
usteltzen ez bazait hitza,
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa banintza.

Euskal Herriko tristura,
soineko beltzen jostura,
txori nigartiz bete da eta
umorez hustu da.
Emaidazue freskura,
ura eskutik eskura,
izarren salda argia edanda
bizi naiz gustura.






# ETXEBERRIA

**TOLARE SAGARDOTEGIA**

**SAGARDOTEGI ZEHARRA, 5**

☎ 943 555 697 - 670 533 542

**20115 ASTIGARRAGA**





*Urtarrilaren 17tik apirilaren amaiera arte zabalik.*
*150 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.*
*Urte osoan sagardo botilak salgai.*
*Berezitasuna: enkarguz makailua saltsan.*



## ALA KINKIRRIN

Erran dut, erranen ta errango,
ez naiz isilik egongo;
plaza hontako dama gazteak
ez dira moja sartuko.
    Erran dut, erranen ta errango,
    ez naiz isilik egongo;
    plaza hontako gizon gazteak
    ez dira praile sartuko.
Ala kinkirrin, ala kunkurrun,
ala kinkirrin kunkurrun kanta,
ala kinkirrin kunkurrun kanta,
ez dira praile sartuko.
(dena bis)

Ala kinkirrin...

## DIN DAN MATUTIAN

Din dan matutian, hiru exkila din dan boleran.
Dorrean bi uso hegalari.

Pin pan gerratean,mila izkilu txinpart batean.
Aidean bi uso hegalari.

Ez, ez nulearrik, bat bateko desegiterik.
Aidean bi uso hegalari.









☎ 943 690 774 ADUNA

ZABALA
tolare sagardotegia

*Nagusia: Ramon Zabala*
*Urtarrilaren 3tik apirilaren 30a bitarte, zabalik.*
*Bertan egindako sagardoa.*
*150 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.*
*Gauero zabalik, larunbata eta igande eguerdietan enkarguz.*
***Bertako sagarrarekin egindako sagardoa.***

## ILUNTZEAN

Ilargia uretan murgildu da
itsas arrain txikien ondora
uraren hozkirriaren zirrara
hondar epelaren alboan

Iluntzean uraren ertzean
errainu baten argia
ene maite biok jolasean
olatu zipriztin artean

Haizeak zimurtu du itsasoa
kresalak lehortu malkoa
maite zure zain hementxe naukazu
izar goiztiarrei begira

Iluntzean uraren ertzean
errainu baten argia
ene maite biok jolasean
olatu zipriztin artean.







## ALDAPEKO

Aldapeko sagarraren adarraren puntan,
puntaren puntan, txoria zegoen kantari!
Xiru-liruli, xiru-liruli, nork dantzatuko ote du
soinutxo hori?

Batzuek: Xiru-liruli (5 aldiz)

Besteek:
Aldapeko sagarraren
adarraren puntan,
puntaren puntan
txoria zegoen kantari!
Zubiburuko zelaieko
oihanaren zolan,
zolaren zolan,
lili bat bada beilari!
Xiru-liruli, xiru-liruli,
nork bilduko ote du
lili xarmant hori?
Mende huntan jasan dutan
bihotzeko pena,
penaren pena,
nola behar dut ekarri?
Xiru-liruli, xiru-liruli,
zuk maitea hartzazu
ene pena hori!

## KATTALIN

Etxe txiki txukun baten
zure aitetamekin
zinen bizi, zintzo bizi
ene maite Kattalin.

Ene maite, ene maite
ene maite Kattalin
sekulako ta betiko
galdu zaitut Kattalin.
Baina eder zinen zinez
zine-izar bat bezin
ile gorri baita zorri
zuk bazenun Kattalin.

Ibaiaren zinen joaten
zure ahate beltzekin
goiz batean, bat batean
ito zinen Kattalin.

Hilerrian bada lore
euzki lili, krabelin
zu zaituzte badut uste
ongarritzat Kattalin.






# GAZTAÑAGA

**TOLARE - SAGARDOTEGIA**

☎ 943 591 968

**IRURAIN ETXEA**
**BURUNTZA AUZOA - ANDOAIN**






*Nagusia: Joxe Angel Gaztañaga*

- *Sagardotegia urtarrilaren amaieratik aurrera zabalik.*
- *Bertan egindako sagardoa.*
- *Astelehenetan itxita.*
- *125 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.*
- *Jatetxe moduan urte osoan irekita.*
- *Berezitasuna: janari goxoa.*

## GORA TA GORA BETI

Gora ta gora beti
hain gora Lapurdi!
Euskarak bizi gaitu
eta bizi bedi.

Gorantza doa agudo kapitala
eta Lapurdi beti dago apala,
aldrebesturik dago mundu zitala,
konformatzen ez bagara ze pekatu mortala!

Gurea ez da bizimodu normala
lurra lantzeko haitzurra eta pala,
lanaren truke kobratzen erreala.
Benetan da miserable
euskaldunon jornala.

Munduan ezin bizi daiteke hala,
merkatuetan dena gora doala
etxera eta zopa guztiz argala,
kriseiluen olioa
ez da postre formala.
Jabeek dute kontzientzi zabala,
kakaztu dute gure lurren azala,
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala;
borroka garbian dago
hori da printzipala.






SARASOLA

TOLARE SAGARDOTEGIA

☎ 943 690 283- 943 652 622

ASTEASU




*Nagusia: Ignacio Sarasola*

*Urtarrilaren 11tik ekaina bitartean zabalik.*

*Bertan egindako sagardoa.*

*180 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.*

*Egunero zabalik, gauez.*

*Larunbata eta jai egunetan, eguerdian irekita!*

*Berezitasunak: Makailu frijitua eta txuletak.*